

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA

2021											
Urta.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uztail.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.
42,1	42,9	67,2	138,1	145,5	141,8	135,9	129,5	128,3	130,0	130,8	131,3

Euskal ekonomiaren termometroa 131,3 puntutan kokatu zen abenduan, azaroko balioa baino puntu erdi bat gorago eta hazkunde sendoko eremuan. Adierazle horrek azken hilabeteetan izan duen hobekuntza leunaren arrazoen artean, enpleguaren bilakaera ona, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaerak iradokitzen duen bezala, eta industriaren ekoizpenaren gorakada nabarmentzen dira. Bestalde, zerbitzuek hazkunde egonkorra erakusten dute, seigarren olatuak jarduera adar batzuetan izan ditzakeen eraginaren ziurgabetasunarekin.

